

FUNTSEZKO JARDUERAK

Lehenik eta behin, funtsezko jarduera batzuk, kanpo enpresen esku egongo dira. Alegia, aterkien (giltzarrapo gabe) produkzioa eta giltzarrapoen (aterkian sartu gabe) produkzioa, hauek ez baitiete balore erantsirik ematen gure produktuari, hau da, giltzarrapodun aterkiari.

Behin aipatutako produktuak lortu ditugunean gure enpresak egingo dituen, jarduerak antolatu beharko ditugu.

Gure enpresaren funtsezko jarduera, giltzarrapodun aterkien ekoizpena izango da, hots, gure hornitzaileetatik lortu ditugun bi produktuak bat egitea, horrela, gure balio-proposamenak izango duen berezitasuna lortuko baitugu. Jarduera hau aurrera eramateko, beharrezkoak izango dira prozesu hau aurrera eramango duen langilea eta honek erabiliko duen tresneria: zulangailua.

Behin, ekoizpena egindakoan, beharrezkoa izango da, online dendaren web-gunea sortzea eta hau kudeatzea. Horrela, eroslearen lehenengo pertzepzioa sortuko dituen argazkiak eta produktuaren inguruko informazioa zein izango den erabakiko dugu. Gainera, eskariak ere kudeatzeko aukera izango dugu. Bai egiten den kopurua (adibidez, aurretik azaldu dugun bezala deskontua egin ahal izateko) bai nora bidali behar den, horrela gure erosleak non dauden ikusi dezakegulako. Gainera, web-gune hau sortzean, bezeroarekin ere harremanetan jarriko gara, bertan produktuaren inguruan iruzkintzeko aukera izango dutelako. Honetaz gain, web-gune hau ere aktualizatu egin beharko da, diseinuak gehitzen goazen heinean. Hala ere, azkenengo honek ez du lehentasunik, diseinuak gehitzearena, enpresak izango duen arrakastaren araberakoa izango delako.

Azkenik, produktuaren banaketa egitea ere funtsezkoa izango da, erosleak produktua eskuratu dezan. Jarduera hau, elkartearen ezarriko dugun garraio-enpresa batek egingo du. Beraz, enpresa guk aukeratuko dugun arren, hau giltzarrapon eta aterkien produkzioarekin batera, kanpo enpresa baten esku egongo den funtsezko jarduera bat izango da.